

# MIKEL UGALDE, EUSKARA ETA HERRIGINTZAREN ZERBITZARI

## Mikel Jainaga Agirre

Mikel Ugaldek 1999an Euskaltzaindiak ematen duen Toribio Alzaga saria jaso zuen **BAKE BILTZARRAREN ILDOTIK** lanarengatik. OARSoren orrialdetan tarte bat egin diogu, elkarrizketa honen bidez. Zorionak emateko beste modu bat da.

- Zorionak Mikel. Toribio Alzaga saria. Zer sari da hori?

- M.U.: Urtero urtero Euskaltzaindiak egin ohi duen deialdia da. Lehiaketa moduko bat izaten da eta lanik hoberena saritu egiten dute. Badu horrelako onespen edo itzal bat Euskaltzaindia bera antolatzaile izanik eta euskaltzaindiko kideak barnean egonik. Euskalerrian



badira beste konkurso batzuk ere, baina izenaren alde-  
tik behintzat Toribio Alzaga da punta puntakoena.

- **BAKE BILTZARRAREN ILDOTIK** du izenburua, zein da lanaren nondik norakoa?

- M.U.: Bakearen inguruan egituratutako obra da. Beti ibili izan naiz bakearen asuntorekin, gaia horrek ikaragari unkitzen nau, herritar gehientsuenak unkitzen gaitun bezala. Gero ETaren su-etena sortu zanean, giro hartan eta abar, bakea nola burutu ote zitekeen edo, pixkabat gaia hori da. Honelakoetan, bi aukera daude. Pakearen asuntua sinplifikatu, errezeta majikoak eman eta nolabait panfleto bat egin, edo bakearen inguruan gogoeta bide batzuk zabaldu. Jakina azkeneko soluzioak, errezak balira ba honezkerok burutuak egongo lirarteke. Antzerki horretan egoera konfliktiboak hartu nituen. Ez biolentzia politikoa bakarrik, hizkuntzaren inguruan egon ditezken gatazkak, gizarte inguruan egon ditezken belaunaldi arteko gorabeherak, gizartean paroaren inguruan egon ditezken suminak eta saminak; gatazka dagoen toki guztietan dago pakea lortu beharra. Nolabait hor

defenditu duten tesia izan da, gizarteak bilatzen dituela gatazkak gainditzeko bideak. Hau da batzutan ez ote dugun gehiegi konplikatzen eta ez ote geniokeen gizarteari gehiago begiratu eta entzun behar. Adibide xume, ximple bat jarriko det: hizkuntza gatazka. Hizkuntzaren inguruan egon ditezken gatazkaren konponbidea famili elebidunetan ikusten dugu. Gizona erdalduna, andrea euskalduna, seme-alabak ikastolan edo beste eskolaen batean D ereduaz hezitzen ari dira. Horrelako tokian zer gertatzen da. Semeak aitarekin erderaz egiten du eta hori amak bete-betean onartzen du, aitak amarekin erderaz egiten du normala den bezala, amak eta aitak seme edo alabarekin euskaraz edo erdaraz. Baina hor ez dago hizkuntza gatazkarik. Ordun, balore batzuk tartekatzen direnean, afektitibitatea, maitasuna, irekitasuna, errespetoa eta abar, gatazkak indargabetu egiten dira neurri handi batean. Lan honetan egin nahi izan dudana deia hori izan da. Batez ere ardura-dunek gehiago begira diezaiotela gizarteari, gizarteak bere bidea egiten baitu.

- Noiztik datorkizu idazteko afizioa?

- M.U.: Antzerkia berez asko gustatu izan zait, baina beti testuinguru baten inguruan. Gaztetan, hogeitun urte bete gabeak izango nituen artean, Koldo Mitxelena ezagutu nuen eta batez ere Andoni Kortak. Andonik egindako hausnarketan inguruan gauza bat ikasi nuen, edo gauza bat erakutsi zidan nahi baduzu, Euskal Herria gehien bat analfabetoa zen. Ez zegoen ez irakurtzeko ohiturarik, ez joerarik, eskola dena erdaraz egiten zen. Andonik asko azpimarratzen zigun, herri honek behar ditu, bere belarria gozatuko dituen eginkizunak edo bilguneak. Bertsolaritza bete-betean sartzen da eta antzerkia ere testuinguru horretan kokatzen zuen. Hori jorratu beharra azpimarratzen zuen, proiektu handiak alde batera utzi gabe. Inoiz gainera, bide hontatik aipatzen zuen, berak modurik izan ezkerok zirkoa montatuko zuala euskaraz. Testuinguru honetan bizi izan dut euskararen mesederako izan ditekela edo antzerkigintza. Orain dela hiru edo lau urte, Andoni Kortaren heriotzaren 25. urteurrena zela eta, omenaldi bat egin behar geniola plantatu zen. Ez antzerkiari bakarrik eman zionagatik, Andoniren babespean hori kuadrillak ezi egin ziren, eta kuadrilla hauek izan dira, bai gabonetan bai Santagedatan Ereintzarekin, hainbat usadio eta ohiturei eutsi diotenak. Zorretan geundela eta hari omenaldi bat egin behar geniola. Lan bat prestatu nuen **AÑAR-BEREN BILA** izenekoa, lehengo antzezleri zaharrek egin zutena Andoni Kortaren omenetan. Ekinaldi hori egin eta gero **JAIOKO DIRA BERRIAK** idatzi nuen. Batez ere antzerki talde bat bultzatu nairik edo Ereintzaren garai hartako antzerki taldearen erreleboa marka zezakeena. Horrela hasi nintzen eta gustora.

- **Antzerkiaz gain, beste gaia batzuk ere erabili dituzu zure idazlanetan.**

- M.U.: Frankismoaren garaia zan, gizartean bazegoen hainbat mugimendu, ni neu JOCen inguruan ibili nintzan. Inguru horretan gizarte talde batzuk sortu ziran. Hor mintegi bat montatu zan eta ikusi nuen esku artean erabili ohi genituen material guztiak erderazkoak zirela eta geure informazio iturriak erdaldunak zirela. Hor ahalegin bat egin nuen "Langileria Historian Zehar" edo bi tomatan idatziz. Batez ere gazteei eta gizarte arazoez mintzatzerakoan euskaraz hori erabili ahal izan zezaten. Itzulpen batzuk ere gin nituen *GIPUZKOARRAK GERA* Elejalderena, Alvarez Emparazaren Euskal-Herriko Arteari buruzko liburua. Gero batez ere asko idaztea egokitu zitzaidan *ZERUKO ARGIAN*, hor artikulu dexente egin nuen.

- **Kazetari ere izan zera.**

- M.U.: Periodismoa izan da nere bokazio frustratua. Seminarioa utzi eta gero periodismoa egin nahi izan nuen. Hemen ez zegoen fakultaterik. Madrilen matrikulatzea iritxi nintzen periodismoa egiteko baina gero beste lan batzuk tartekatu ziran eta ez nuen jarraitzerik izan, baino periodismoari ikaragarriko begirunea diot, gainera iruditzen zait gizartegintzan komunikazioaren mundua eta periodismoaren mundua oso garrantzitsuak direla. Nik periodistari errespeto handia diot, *EGIN*en lehen garaian lan egin izan nuen eta periodistari berez ikaragarriko errespetua diot. Bere lana baloratzen saiatzen naiz oso zaila delako. Gero hainbat arazo eta interes tartekatzen direnean askotan borondate onez ari den periodistaren lana itxuraldatu egiten delako. Baino egian eta zuzentasunean oinarritutako komunikazio bide batek, on handia egin diezaioke herrigintzari.

- **Beste literatura jenerorik landu duzu.**

- M.U.: Nere idazte kontua, herrigintzaren testuinguruan kokatu izan dut. Herrigintzaren onerako izan ba zitekeen, zerbait eskaini nezakeen neurrian hortik jotzeak animatzen ninduan eta egin izan det. Esate baterako, *ZERUKO ARGIA* garai hartan ikaragarri interesgarria gertatu zitzaidan gizartean bizi izan zen egoeragatik. "H" a dela eta ez dela, oso gizarte autsia zegoen, euskara batua eta ez batua, orduan zubigintzan aritu izan nintzen. Bai alde batekoekin eta bestekoekin hitzegitea, elkar entzutea, ahalik eta gehien tentsioak baretzea egokitu zitzaidan. Garai hartan egindako lanarekin oso gustora nago.

- ***ZERUKO ARGIA*ra joateko izan zenituen arrazoiek sindikalgitzan murgildu zintuzten?**

- M.U.: Momentu batean ikusi nuen Euskal Herria aurrera ateratzeko euskal erakundeak sortu edo indartu behar zirela eta beste horrenbeste gertatu zitzaidan sindikalgitzan. Azkenen gizarte bat mahai bat da, mahai hortan badago politka, badaude indar sozialak, indar ez gubernamentalak edo beste maila batekoak. Euskalgintzaren mahai hau aurrera eramateko, euskal sindikalismo bat lantzea oso inportantea izan zitekeela ikusten nuen. Besteak beste euskaldunok hori egiten ez bagenuen erdal joerako indarrek bete zezaketelako espazio hori. Arrazoi berberagatik, beraz, ELAn liberatu nintzen. Bost urte egin nituen. Hor emandako urteek idazteko joera hori ikaragarri mugatu egin zidan, beste mundu batean kokatu nintzelako. Ibili ibilian motibazioa beti berdintsu izan da, euskara eta herrigintza. Nobelaren bat ere egin nuen beroaldi batean baino ez

det gehiegi egin izan. Iruditzen zait horrelako lanerako ez daukadala behar hainbat pazientziarik. Idazteko oso sistematikoa izan behar da, gauzak ondo antolatu eta era ordenatuan egin behar da.

- **Poesia?**

- M.U.: Poesiarekin badaukat nere krisis pertsonala... Zergatik diodan hau?... Orixen bat ikusten det eta gustatu egiten zait, Lizardi irakurtzen det eta gozatu egiten det. Orain... zenbait poesiekin hasten naiz irakurtzen ... eta literaturarekin gozatu egin behar omen da; ba nik ez det ba gozatzen. Ez diot ez hanka ez buru hartzen, ez diot tankerarik hartzen.... Lete, Juan Mari Lekuona, Artze eta oso ondo, baina gero beste batzuek ihes egiten didate.

- **Euskararen Aholku Batzordean ere izan zera. Zer moduzko esperientzia izan zen?**

- M.U.: Oso aberasgarri gertatu zitzaidan. Euskalgintzan aritu nintzan, Euskararen Aholku Batzordean, hainbat ardura izan nuen. Gainera oso ardura polita, ze nere ardurapean, ez zegoen peseta bat bera ere gastatzeko ahalmenik. Nere lanaren, edo eman nezakenaren indarra entzutea, hitzegitea, zubi lana, gizartea gozatzen, jendea-ri entzuten ahalegintzea. Alde horretatik oso esparru desberdinetako jendearekin lan egitea egokitu zitzaidan. Bestetik administrazioak zer nolako zailtasunak dituen euskalgintzaren planak eta konpromisoak aurrera eramateko jabetu nintzen. Azkenean pertsonekin lan egin behar denean, ez baita dekretoz bakarrik funtzionatzen, azkenean jendearen atxikimendua lortu behar baita. Beraz patxada handia, irekitasun handia, harreman pertsonalak zaindu, ahalik eta gehiena entzun, iradokizunak eta beti jalkitzen joan eta horrek lehentxeago edo gero-xeago bere fruitua ematen du. Oroitzapen ona daukat.

- **Gaur egun hezkuntza munduan ari zera.**

- M.U.: Bai, euskara plaza atera nuen, hortik egin nituen oposizioak eta orain Hezkuntzako Aholkularitzategia deituriko batean nago. Hor nere kezka ere baditut. Euskararen irakaskuntza eta euskararen aurrerakada, ez dihoa nahi bezain sakon eta nahi bezain emankor. Zergatik? Alde batetik, ikasten den euskara eta erabiltzen den euskararen artean ez dago proportziorik. Adibidez, EGA titulua atera duten gazteak milaka eta milaka daude zorionez geure gizartean, baina gero euskal liburu baten tirada 2.000-3000 alekoa da, egunkariak ere oso era mugatuan erosten dira. Behar bada geure euskararen irakaskuntza, ikaskuntza hori, agian, herri honen bilakaerarekin txertatu beharra dago. Antzeko zerbait hezkuntzan. Nik neronek zuhaitz bat nolakoa den, hostoak zer funtzio duen, zainak zer egin-kizun duten, enborrak nondik norako papera jokatzen duen hori dena ikasi dezaket, baina gero zuhaitz hori maitatzera iristen al naiz? Ikastetik, atxikitzen ematen al degu orokorrean euskararekin pausorik.

- **Nola ikusten duzu gure herrian euskararen egoera? Lau- Haizetaran ere aritu zera zeure apurtxoak jartzen.**

- M.U.: Erreterea bezalako herri batean, euskaldunak, euskalungoaren barruan lan egiteaz gain, nik uste gero eta gehiago lan egin behar dugula erdaldunekin ere. Adibidez: Euskal Telebista euskaraz sortu zen eta gero erdaraz ere beste kate bat jaio zen. Euskaldunen artetik zenbait kritika jaso ziren, baina Euskal Telebista erdal-dunei erderaz eskaintzen ez badiegu, seguraski euskal herriak zazpi lurralde dituela ere enteratzera ere ez lirateke iritxiko beste telebista kateak ikusiz bakarrik jokatuko balute. ETB ikustean berriz, eguraldiaren berri



jasotzerakoan iparralde bat badagoela ere konturatuko dira. Edo beste euskal lurraldetan gertatzen diren hainbat notizi, gertakizun eta abar ezagutzen dituzte. Hortan irekiak izan behar dugu. Erdaldun horiei ere euskal mezua nola iritxi arazi. Hori ez da Lau-Haizetaren eginkizuna, Lau Haizetarak bere lan eremua oso ondo mugarrtua du eta nik uste galtza bete lan baduela, baina beste lan esparru batzuk zabaltzen joan beharko genukeela iruditzen zait.

#### - Zer moduzko irakurlea zera?

- M.U.: Beharko nukeena baino irakurle txarragoa naiz. Irakurtzea asko gustatzen zait baino irakurtzeko ere, patxada, beta, behar da, eta oporretan edo horrela ez baldin bada, nekez hartzen dut irakurtzeko behar hainbateko denbora. Gainera problema bat daukat. Garai batean esaten ziguten, Seminarioan “*Zuek berrogei urte egin bitarte, tratu handia izan zazute zaharrekin, eta 40 urtetik gorako pausoa ematen dezutenean alegindu zaitezte gazteekin tratua izaten*”. Literaturarekin antzeko zerbait gertatzen zait. Lehengo klasikoak oso gustora irakurtzen ditut, gozatu egiten dut, baita idazle gazteen lanak, Irigoien bat, Saizarbitoria bat edo Leteren poesiak, baino beste lan batzuk. nere eginkizun profesionala dela medio irakurri behar izaten ditut, eta hori gehiago kostatzen zait. Irakurri egin behar dela konturatzen naiz eta hor daukat liburu mordo bat ilaran jarriak nolabait, egunen batean, jubilatzen naizenean irakurtzeko erabakiarekin. Irakurtzeak euskara bera eguneratzen laguntzen du.

#### - Gaur egun zer funtzio duela uste duzu antzerkiak?

- Antzerkiaren funtzioa aldatzen ari da eta aldatu beharra dago. Guk euskara maite genuelako eta euskararen alde zerbait egin nahian genbiltzalako, heldu genion antzerkiari, eta horregatik sortu zen Ereintzan antzerki talde. Hau aldatu da. Orain normalidade baten barruan sartzen ari gara eta nik uste dut, antzerkia, batez ere, gozatzeko eta goza arazteko egin behar dela. Hori euskararen eskutik badator hobea. Baina helburua desberdina da.

#### - Gaur egungo antzerkiarekin gozaten al duzu?

- Ni neu berrogeigarren urtean jaioa naiz eta bakoitza geure garaiko seme-alabak gera. Gainera bakoitza den bezalakoa da eta nere antzerki joera horretan hitzak eta hizkuntzak indar gehiago du irudiak eta irudimenak baino. Dena dela, joan izan naiz behin baino gehiagotan, antzerkiak ikustera eta hantxe ordu t'erdi pasa eta kontxo...gainera gazte jendez inguratua, eta... ez zidak beneri ezer esaten ba, aldi berean konturatzen nintzen, nere inguruan zeuden gazteak engantxatuta zeudela, farra eta erreazioak nabaritzen zitzaizkiela, orduan konklusio batera iritxi nintzen. Axularrek esango zukeen bezala, errua ez zela antzerkiarena, baizik errua ikuslearena zela. Hor edukazio arazo bat, balaunaldi arazo bat ere bada. Beste batzutan gozatu ere bai.

#### - Andoni Kortaren 25. Urteurrenean, “*Añarberen Bila*” prestatu zenuen. Beraz, idazle eta zuzendari.

- M.U.: Ez. Zirikatzaile. Andonirekin, ez guk bakarrik, herriak ere zor handia zuela eta Andoniri zer omenaldi egingo diogu pentsatu genuen. Bi ardatz hartu genituen;

bat, bera guk antzerkigintzaren buruzagi bezala ezagutu genuen, pertsona handi bat bezala, naiz eta neurritz txikia izan, egin diezaiogun antzerki bat. Batzuek Hondarrabitik, besteak Donostiatik, garai batean berarekin antzerkia egiten ibilitako jendea, taldea osatu, horretarako bakarrik, egun horretarako prestatutako obra antzezteko bakarrik, taldea sortu zen. Andoniren omenaldiak hontan geratu behar al du, esaten genuen. Ba ez. Eta bi lan ildo zabaldu genituen. Bat, Ereintzan euskal antzerki talde bat finkatzen joatea. Eta bi, Andonik hain maite zuen eskola mundu horretan Andoni ezagutarazi eta, Andoniren omenez urtero urtero, martxoan, bera garai hortan hil zen, garai horretan, bere omenez Eskola arteko euskal antzerki topaldia egiten da. Aurten 21 emanaldi edo izan dira, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriko eskoletako taldeen eskutik euskara hutsean. Topaketa horiek instituzionalizatu dira, antolaketaren ardura Errenteriko pedagogia aholkularitzategiak darama.

#### - Ereintza antzerki talde berria zertan da?

- Gaurko egoeran figura klabea Sabin Irastorza da. Bera bai izan zela benetako antzerkigile, eta orain dela gutxi ere Azpeitiko antzerki topaketetan, edota Deban, sekulako lan bikaina egin zuen *ZOTZEAN BIZIA* antzeztuz. Ofizio handikoa da, sena handikoa, eta gainera gazteek asko maite dute. Sabin ari da zuzendaritza lanetan, baina aldi berean, konturatzen gara, gazteen eskutan utzi behar ditugula gauza guzti hauek eta gure lana batez ere, subsidiaridadearen bidetik doa. Bestek ezin badute zerbait egin eta guk bai, bale, aurrera. Baina, zer antzerki aukeratu, garrantzi handia ematen diogu gazteen gustokoak izango diran jakiteari. Gazteak bilduko dira, lan mordo bat irakurriko dute, zer gustatzen zaien, egingarriak zein diren, geure bitartekoak neurtuz zer egin dezakegun, hori dena hartuz aurrera egiten dugu Geure idea hau da, antzezle gazteari gustatzen zaion obra, seguruaski gazte ikusleari ere, errazago gustatuko zaiola, orduan, ez antzerki taldea aldatu, ikuslegoa ere, aldatzen joan. Hori da antzerki taldearen filosofia. Argi eta garbi protagonismoa eta erantzunkizuna gazteek dute.

#### - Taldearen etorkizuna?

- M.U.: Etorkizuna zaila. Gazteen mundua oso inestablea da. Gazteak badiu lehentasun batzuk, eta bat, lana da. Gazteak lanik ez badu, bere ahalegin guztiak lanan nundik sortuko izango dira. Orduan horrek zer dakar, gaur lanik ez daukat eta libre nago, baina bihar lana badaukat, kontrato bat egiten didate, gainera gaurko kontrato molde horietan (hiru hilabete edo lau, edo aste bat), eta alde horretatik mugak daude, Gero bestetik, eman beharreko pausoa eta definitu beharreko pausok, gazteeri egokitu zaie hori definitzea?. Antzerki talde bat izan diteke, urtean behin lan bat egitekoa. Bestetik lan bat egin eta behin ematea lastima dek ba, lanik zailena egin da gero zergatik zabaldu ez. Gainera sinistuta gaude antzezlea edo antzerkia, taula gainean egiten dela, horretarako rodajea behar da, eta emanaldiak zabaldu egin behar dira. Emanaldi horiek zabaltzeko azpiegitura bat behar da, taldea osatu eta sendotu. Fase horretan gaude. Nik uste denbora puska bat eskatuko digula oraindik bere norabidea definitu bitarte.